



Save the Children



NAHASTU NIREKIN

Desegregaziorako
Erreminta Kutxa

ÍNDICE

1 ZER DA ESKOLA-SEGREGAZIOA?	3
2 ZEIN DA GURE HELBURUA ESKOLA-SEGREGAZIOAREN AURREAN?	5
3 NOLAKOA IZAN DA PROIEKTU HONEN IBILBIDEA?	6
1. FASEA: IRTENBIDE BATEN DIZIPLINARTEKO BATERAKO SORKUNTZA	7
2. FASEA: “NAHASTU NIREKIN” ERREMINTA KUTXA IRTENBIDE GISA. TESTAK ETA EGOKITZAPENAK	8
3. FASEA: ESKU-HARTZEA ESKALA HANDIAGOAN GIDATZEA	9
4 ZER EMAITZA IZAN DITU ESKU-HARTZE HONEK?	11
5 ERREMINTA BURUZKO ONDORIOAK: KUTXAREN GARRANTZIA, ERAGINKORTASUNA ETA JASANGARRITASUNA	14
BIBLIOGRAFIA	17

Gizarte Intzidentziaren eta Haurtzaroko Politiken ataleko zuzendaria: Catalina Perazzo Aragoneses;
 coordinatzailea: Michelle Quintero Díaz; egilea: Agustina Deltasanta; aurretiazko ikerketaren
 egilea: Persona Servicios de Cocreación, S.L.; ebaluazioa: Daleph Iniciativas eta Organización, S.A.;
 ilustrazioak, artea eta maketazioa: Persona Servicios de Cocreación, S.L.
 argitaratzailea: Save the Children Espainia, 2025eko otsaila

1 ZER DA ESKOLA-SEGREGAZIOA?

Eskola-segregazioa ikastetxeen osaeraren eta haien ingurunearen osaeraren artean izaten diren desbideratze edo desberdintasunen emaitza da. Arazoa larriagotzen bada, lurralde bateko ikastetxe batzuetan ikasle mota jakin batzuk biltzen dira, maila sozioekonomikoaren edo nazionalitatearen arabera, besteak beste. Zehazki, arrazoi sozioekonomikoen eragindako eskola-segregazioa gertatzen da ikastetxe batean **arrazoi sozioekonomikoengatik zaurgarriak diren ikasleen kontzentrazioa** dagoenean, hezkuntza-eremu bereko beste ikastetxe batzuetan ez bezala.¹

Zenbait ikerketak² erakusten dute eskola-segregazioak oso ondorio kaltegarriak dituela haurrentzat:

- **Ekitaterik eza** eragiten du kalitatezko hezkuntza lortzeko orduan.
- Haur eta nerabe guztiei eragiten badie ere, are eragin handiagoa du maila sozioekonomiko baxuko ikasleengan, segregazioa duten eskoletan. Kasu horietan, **errendimendu akademikoak** eta **unibertsitate-ikasketak egiteko itxaropenak behera egiten dute**, eta, aldi berean, **errepikapen-tasak eta**

eskola-porrotak gora egiten dute, eskola mistoekin edo segregazio txikiagoa dutenekin alderatuta. Besteak beste, hori gertatzen da ikasle zaurgarriak ikastetxe gutxitan kontzentratzeak **murritztu egiten dituelako** pareen efektua edo **ikaskide-efektua deiturikoaz baliatzeko aukerak**; efektu horren ondorioz, ikaskideen testuinguru sozioekonomikoak eta kulturalak eragina du ikasle bakoitzaren banakako erabakietan eta emaitzetan.


- **Familien aukeratzeko gaitasuna murritztu** lezake horrek, eta denboran zehar errepikatu egin daiteke. Eskola-segregazio handiko testuinguru batean, familiak, beren aukeraketa egiterakoan, konplexutasun-maila handieneko ikastetxeak saihesten saiatuko dira.
- Eskola-segregazio handiena jasaten duten ikastetxeak, hezkuntza-eremuak eta ikastetxe horietara joaten diren ikasleak **diskriminatzen eta estigmatizatzen** laguntzen du.
- Zentzu makroagoan, **hezkuntza-sistemaren eraginkortasuna**

¹ Save the Children. (2018). "Nahastu nirekin" txostena. Hemen: <https://www.savethechildren.es/publicaciones/mezclate-conmigo>

² Hainbat ikerketatan oinarritu gara: lehenago aipatutako Save the Childrenena ("Nahastu nirekin", 2018); Save the Children eta Esade Ecpol-ek egindakoa ("Aniztasuna eta askatasuna. Eskola-segregazioa murriztea, ikastetxea aukeratzeko gaitasuna errespetatuz", 2021ekoa); Fundació Jaume Bofillena ("Ikastetxea hautatzeko eta esleitzeko politikak: zer eragin dute eskola-segregazioan?", 2017koa; edo "Estat i l'evolució de la segregació escolar a Catalunya", 2020koa); Javier Murillorena eta Cynthia Martínez Garridorena ("Maila sozioekonomikoaren arabera eskola-segregazioaren magnitudea Espainian eta autonomia-erkidegoetan, eta Europar Batasuneko herrialdeekiko alderaketa", 2017koa), besteak beste.

murritzten du, emaitza txarragoak eta gastu publiko handiagoa dakarrelako berarekin, eta horrek, aldi berean, **herrialde bateko ekonomiari kalte egiten dio**, produktibitateari, hazkunderari eta berrikuntzari dagokienez. Gainera, ebidentziak erakusten du eskola-segregazio handieneko herrialdeek **gizarte-kohesio txikiagoa** dutela

Fenomeno hori **hainbat faktorek** eragiten dute: hezkuntza-politika eskasak (eskaintzari, eskariari eta baliabideei dagokienez), ikastetxeetara sartzeko eta handik kanporatzeko irizpideak, bizilekuaren arabeko segregazioa, arrazoi sozioekonomiko eta kulturalengatiko diskriminazioa, **eskolatze-prozesuan familiei informazioa eta laguntza ez ematea**, besteak beste.



2 ZEIN DA GURE HELBURUA ESKOLA-SEGREGAZIOAREN AURREAN?

Save the Childrenen uste dugu **segregazioa bultzatzen duen hezkuntza-sistema batek mugatu egiten dituela haurren garatzeko aukerak**, batez ere ahulenenak. **Hezkuntza inklusiboaren** alde egiten dugu, non aniztasuna nagusi den eskoletan elkarrekin ikasiko duten haurrek, guztiek aukera berdinak izatea erraztuko duen arreta eskainiz eta ikasle bakoitzaren behar espezifikoak erantzunez, haien egoera sozioekonomikoa eta beste edozein baldintza kontuan hartu gabe.

Helburu hori betetzeko, **ezinbestekoa da familiak ondo informatuta egotea**. Hala ere, honako hau ikusten dugu:

- **Maila sozioekonomiko txikieneko edota jatorri atzerritarreko familiek**, askotan, ez dute ezagutzen Espainiako onarpen-sistemaren funtzionamendua.³
- **Maila sozioekonomiko handieneko familiei edo tokiko familiei** dagokienez, ikastetxeei buruzko informazioa eskuratzeko aukera gehiago badute ere, haiekin lan egin behar dela ikusten da, eskoletan aniztasuna egoteari buruzko

aurreiritziak desmuntatzeko, ebidentziatik abiatuta. Gizartearen osaera eta ikastetxearen ospea erabakietan eragina duten faktoreak dira, eta horrek estigmatizazioa eta segregazioa bultzatzen dituen gupil zoro bat errazten du; hala, bada, kaltegarria izan daiteke hori, hezkuntza-proiektuaren kalitatea edozein dela ere.⁴

Nolanahi ere, beste herrialde batzuetako adibideek erakusten dute **familiak sentiberak direla erabakiak hartzeko orduan informazioa emateko ekintzen aurrean**; beraz, garrantzitsua da informazioa nola aurkezten den, eta maila sozioekonomiko apalagoa dutenek gehiago jotzen dute administrazioak ematen dien informaziora.

Azaldutakotik abiatuta, arazo horri aurre egiteko eta arazo horren arrazoi nagusietako bati erantzuteko, proiektu bat garatu nahi izan dugu, eskolatze-prozesuari buruzko informazioa emateaz gain, **familiak sentsibilizatu ahal izateko aniztasunak duen garrantziaz**, beren seme-alabentzat egiten duten ikastetxe-aukeraketan kontuan hartu beharreko faktore gisa.

³ Save the Children eta Esade EcPol. (2021). "Aniztasuna eta askatasuna. Eskola-segregazioa murriztea ikastetxea aukeratzeko gaitasuna errespetatuz".

⁴ Fundació Jaume Bofill. (2010). "Les famílies davant l'elecció escolar".

3 NOLAKOA IZAN DA PROIEKTU HONEN IBILBIDEA?

Proiektu hau aurrera eramateko, honako fase hauek garatu ditugu:



**1. FASEA:
ELKARREKIN SORTZEA**

Hezkuntzako hainbat arlotako eragileekin batera, eskola-segregazioaren aurrean gure erronka zein izan behar zen pentsatu genuen, eta lortu nahi genuen helburua bete ahal izateko esku-hartze bat diseinatu genuen.



**2. FASEA:
IRTENBIDEA ETA
TESTAK**

Behin esku-hartzea diseinatuta, pertsona-talde txiki batean testatu genuen, hobekuntzak egin ahal izateko.



**3. FASEA:
ESKALA HANDIAGOAN
GIDATZEA**

Gidatze-lan bat egin genuen, prozesua ebaluatu eta gure esku-hartzearen eragina neurtu ahal izateko.

♥ 1. FASEA: IRTENBIDE BATEN DIZIPLINARTEKO BATERAKO SORKUNTZA

Hauek dira proiektua elkarrekin sortzera bultzatu gintuzten helburuak:

- Hezkuntza-arloan inplikatura dauden eragileek eskola-segregazioa nola ikusten duten ulertzea.
- Eragile horien esperientzia, ezagutza eta beharretan oinarritutako irtenbide posible, erabilgarri eta berritzaileak eraikitzea.
- Akatsei aurrea hartzea eta diseinatutako konponbidea interesdunek onar eta susta dezaten laguntzea.

Prozesu hori egiteko, biltzeko teknika hauek erabili ditugu:

- A. Dokumentu-ikerketak:** gaiari lotutako literatura, txostenak eta azterlanak berrikusi genituen. Horri esker, eskola-segregazioari buruzko ezagutza zabalagoa eskuratu genuen, eta arazo horri heltzeko arrazoiak, ondorioak eta estrategiak identifikatu genituen, bai eta baterako sorkuntzako lantegietarako funtsezko eragileak ezagutu ere.
- B. Elkarrizketak erabiltzaileei eta eskola-ekosistemako pertsonari:** elkarrizketa sakonak egin genizkien autonomia-erkidegoetako gobernuetako hezkuntza-sailei (Hezkuntzako eta Hezkuntza Ikuskaritzako Zuzendaritza Nagusietako teknikariak eta aholkulariak, esaterako), adituei, ikastetxeetako zuzendaritza-taldeei eta irakasleei, gizarte-erakundeei eta familiei. Lagungarria izan zen hori baterako sorkuntzarako lantegiak modu kontzientean diseinatzeko, eta aipatutako eragileak ere hartu zuten parte lantegi horietan.
- C. Baterako sorkuntzako lantegiak:**
 - **Hasierako baterako sorkuntzako lantegiak:** saio horiek ikerketa-fasea baliozkotzeko eta eskola-segregazioan eragina duten faktoreei buruzko informazio osagarria lortzeko lagungarriak izan ziren. Besteak beste, **parte-hartzaileek azpimarratu zuten familiek zailtasunak dituztela beren seme-alaben eskolatzeko-prozesuari buruzko informazioa ulertzeko**, batez ere familia zaurgarrienek. Alde horretatik, hezkuntzaren alorreko eragileen artean familiei laguntzeko ekintza koordinatuak egin beharko liratekeela esan zuten guztiek aho batez.
 - **Eraikitze eta baliozkotzeko lantegia:** saio honek ideiak zehazteko eta bideragarriak eta planteatutako erronkei hobekien erantzuten zietenak lehenesteko balio izan zuen. Bertaratutakoek gehien bozkatutako ideietako batzuk honako hauek izan ziren: **familiei zuzendutako eskolatzeari buruzko lantegi modularrak** sortzea, bai eta administrazio publikoentzako eskola-desegregazioa sustatzeko ekintzen *check list* bat ere.
 - **Prototipoak sortzeko lantegia:** hasierako prototipoak eraikiz hipotesiak diseinatzean eta probatzean nahiz hobekuntzak txertatzean oinarritu zen saio hau. Bertaratutakoen artean sortu ziren gomendioetako batzuk **autonomia-erkidegoetako eta tokiko jardunbide egokiak jasotzea, erabilitako hizkuntza egokitzea eta ibilbide pertsonalizatuak eta malguak sortzea** izan ziren.

➤➤ 2. FASEA: “NAHASTU NIREKIN” ERREMINTA KUTXA IRTENBIDE GISA. TESTAK ETA EGOKITZAPENAK

“Nahastu nirekin” Eskola Desegregaziorako Erreminta Kutxak **hainbat estrategia eskaintzen ditu** lantegira joaten direnen artean **hezkuntza inklusiboaren onurei buruzko gogoeta sustatzeko**, eta, aldi berean, eskolatzeko-prozesuari buruzko informazioa ematen die.

Lantegiaren azken hartzaileak seme-alabak eskolatzeko adinean dituzten familiak dira. Hala ere, lantegi hori egiteko gida talde horrekin harremana duten eta beren herrian aniztasuna nagusi izango duten eskolak sustatu nahi dituzten eragileei zuzenduta dago: eskolatzeko bultzatzeko bulegoak edo beste zerbitzu batzuk, haur-eskolak, guraso-elkarteak, gizarte- edo hezkuntza-erakundeak eta auzo-elkarteak, besteak beste.

Erreminta Kutxa honek honako hauek ditu:

- **Eskola-segregazioaren fenomenoari buruzko informazioa.**
- **Gida oso bat**, familiak modu askean eskolatzeari buruzko lantegi bat garatzeko behar diren baliabide guztiekin.
- **Aurrez zehaztutako 3 ibilbide**, hurrenez hurren, gida bat, dinamikak eta lantegian parte hartzen duten taldeen osaeraren arabera egokitutako laguntza-baliabideak jasotzen dituztenak:
 - Familia talde heterogeneo batentzat: lantegi berean profil sozioekonomiko desberdineko familiak daudenean edo parte hartu behar duten familien profila aurrez ezagutzen ez denean gertatzen da. Ibilbide honek eskola-segregazioarekin bat datozen funtsezko kontzeptuak jorratzen ditu, eta, aldi berean, familiek ikastetxea aukeratzeko kontuan hartzen dituzten irizpideei buruz hausnartzeko aukera ematen du.
 - Jatorri atzeritarreko familientzat edo Espainiako hezkuntza-sistema ezagutzen ez dutenentzat: hezkuntza-etapen eta Espainiako hezkuntza-sistemaren beste alderdi garrantzitsu batzuen hasierako azalpena jasotzen du, bai eta hezkuntza-oztopo jakin batzuk dituzten pertsonekin lan egiteko gomendio espezifikoak ere (adibidez, hiztegia berrikustea edo irudiak erabiltzea ulermena errazteko).
 - Ondo informatutako familientzat: Espainiako hezkuntza-sistema ezagutzen duten familientzat pentsatuta dago, tokiko hezkuntza hitz egiten eta irakurtzen dutenentzat eta informazio gehigarria bilatzeko baliabideak dituztenentzat. Ibilbide honek ebidentziatik abiatuta aniztasunak dituen onuretan sakontzen du.

TESTAK ETA EGOKITZAPENAK

Lleidako Udaleko Eskolatze Bulegoarekin eta haur-eskolen sarearekin lankidetzan, Erreminta Kutxak gidatutako lantegiaren eraginkortasuna ebaluatzen dugu, bai eta haur-eskoletako emakumezko zuzendariei eragile izan daitezen zuzendutako saioen eraginkortasuna ere (familiei emango baitiete lantegia).

Eragile horien iradokizunetatik eta gure oharretatik abiatuta, **zenbait hobekuntza egin genizkion proiektuari:**

- Aurrez deskribatutako 3 ibilbideak gehitu ditugu, bideratzaileek eskatuta, lantegia emateko ibilbide-orri itxiak izatea nahiago zutela adierazi baitzuten.
- Alde teorikoa murriztu genuen, eta emakumezko zuzendariak trebatzeko zati praktikoa handitu genuen, ibilbide bakoitzaren dinamikak praktikan jartzen hasteko eta haien zalantzak argitzeko lantegiaren simulakro bat barne.
- Gida argiagoa eta intuitiboagoa izan dadin egokitu genuen.
- Gehiago sakondu genuen eskola-segregazioaren inguruko beldurretan eta ebidentzietan, bai eta aniztasunaren onuretan ere.

Esan behar da, instantzia honetatik, Lleidako Udaleko Eskolatze Bulegoak eskaintza berezia⁵ sustatu zuela eskolatze inklusiborako lantegietan.

+ 3. FASEA: ESKU-HARTZEA ESKALA HANDIAGOAN GIDATZEA

Eskala handiagoko gidaritza Lleidako eta Tarragonako udaletako eskolatze-bulegoekin eta haur-eskolen sarearekin lankidetzan egin genuen. Gidaritza horretan, **19 emakume zuzendarik, 21 haur-eskolek** (Lleidako 12 eta Tarragonako 9) eta **182 familiak** parte hartu zuten. Emakumezko zuzendari guztiek eragile izateko saio bat jaso zuten eta, handik gutxira, bertaratutako familiei lantegia eman zieten, kasu bakoitzerako azken horien beharretara gehien egokitzen zen ibilbidea aukeratuz.

⁵ Ikastetxe zaurgarriak babesteko helburuarekin eta haien konplexutasuna areagotu ez dadin, otsailaren 16ko 11/2021 Dekretuak, Kataluniako Hezkuntza Zerbitzuko ikastetxeetako hezkuntza-eskaintzaren eta onarpen-prozeduraren programazioari buruzkoak, talde berezien neurria jasotzen du. Talde horiek plaza bereziak eskaintzen dituzte ikastetxe konplexuetan, familia arruntak erakartzeko. Haurrak beren haur-eskola bereko ikaskideekin eskolara joango direla bermatzea da helburua, horrela, gizarte-kohesio eta aniztasun handiagoa sustatzeko ikasgelen barruan. Hala, talde berezien helburua da zailtasun sozioekonomikoak dituzten ikasleak ikastetxe jakin batzuetan kontzentratzea saihestea, ikasleak modu bidezkoagoan banatuz inguruko eskolen artean.

Prozesu hori egiteko, teknika hauek erabili genituen:

INKESTAK:

- Lantegiaren aurreko inkesta familiei: informazio- eta balorazio-alderdiak neurtu ziren, bai eta eskola-segregazioari buruz zuten hasierako ezagutza, aniztasunarekiko jarrerak eta lantegiarekiko itxaropenak ere. Guztira, 182 erantzun jaso ziren.
- Lantegiaren ondorengo inkesta familiei: lantegiarekiko gogobetetze-maila, eskuratutako ezagutzak eta ikastetxearen hautaketari buruzko jarreretan eta portaeretan izandako edozein aldaketa neurtu ziren. Guztira, 43 erantzun jaso ziren.
- Emakumezko zuzendariei zuzendutako lantegiaren ondorengo inkesta: lantegiarekiko gogobetetze-maila neurtu zen, bai eta lantegia emateko Erreminten Kutzak eskainitako tresnak ere, eta azken horren eraginari buruzko iritzia jaso zen. Guztira, 21 erantzun jaso ziren.

ELKARRIZKETA ERDIEGITURATUAK:

- Emakumezko zuzendariei zuzendutako lantegiaren aurreko elkarrizketa erdiegituratuak: beren ikastetxeetako eta lurraldeetako eskola-aniztasunari eta eskola-segregazioari buruzko hasierako pertzepzioak jaso ziren, bai eta lantegiaren eraginari buruzko itxaropenak ere. Guztira, 10 emakume zuzendari elkarrizketatu ziren.
- Familiei zuzendutako lantegiaren ondorengo elkarrizketak: eskola-aniztasunari eta eskola-segregazioari buruzko pertzepzioan izandako aldaketak neurtu ziren, bai eta lantegiak ikastetxea aukeratzeko prozesuan izan duen eragina ere, eta etorkizunean hobekuntzak egiteko gomendioak jaso ziren. Banakako eta taldeko elkarrizketak egin zitzaizkien 8 familiari. Ordezkaritza handiagoa lortzeko ahalegina egin arren, elkarrizketatutako pertsona gehienak 30 eta 45 urte bitarteko emakumeak izan ziren, Lleidakoak eta Tarragonakoak.
- Elkarrizketak Lleidako eta Tarragonako udaletako eskolatze-bulegoetakoekin: haiekin hitz egin genuen beren lurraldeko eskola-segregazioari buruz, hori zuzentzeko dauden politikei buruz eta lantegiak familiengan izan lezakeen eraginari eta lantegiaren garrantziari eta eraginkortasunari buruz. Udaletako eskolatze-bulegotako 5 erreferente elkarrizketatu ziren.

Ahaleginak ahalegin, ebaluazioak **mugak** izan zituen: alde batetik, nabarmen murriztu zen lantegien ondorengo inkestetan lortutako erantzunen kopurua, eta, bestetik, ezin izan ziren lortu esku-hartzearen benetako eraginari buruzko ondorioei sendotasuna ematen dieten datu administratiboak. Muga horien aurrean, emaitzek datu kualitatiboetara zuzentzen dute arreta.

4 ZER EMAITZA IZAN DITU ESKU-HARTZE HONEK?

Lehenik, ebaluazioaren testuinguruko zenbait **oharpen** egin nahi ditugu:

- Familien **parte-hartzeari** dagokionez, gehiengoak emakumeak izan ziren, goimailako ikasketak zituzten pertsonak (ondoren bigarren mailako ikasketak eta derrigorrezko hezkuntzaren ondoko ikasketak zituztenak), katalanak batez ere, beste autonomia-erkidego edo herrialde batzuetakoak baino gehiago, eta adin-tartea, nagusiki. 30 urtetik 45 urtera bitartekoa.
 - Familiek beren seme-alaben etorkizuneko eskolarekin lotuta dituzten **kezka nagusiak** osaera soziokultural, etniko eta erlijiosoaren, kolektibo batzuk ez integratzearen eta estali gabe dauden behar berezien ingurukoak izan dira. Illo horretatik, hauek dira familiek euren esanetan saihestu nahi dituzten **alderdi negatiboak**: gatazkak (% 42,1), bullyinga (% 36,8) eta diskriminazioa (% 15,8); familia migratzaileei kezka handia eragiten dieten gaiak dira.
 - **Ikastetxea aukeratzeko lehentasunezko irizpideen** arloan, familientzat lehentasuna dute hauek: gertutasun geografikoa (% 52,6), ikasleen hezkuntza-errendimendua eta ikastetxearen ikuspegi pedagogikoa (% 38,2), bizikidetza eta eskolako giroa (% 22,2) eta kultura eta eskolaren balioak (% 19,6). Familiek ikastetxetik espero dituzten beste **alderdi positibo**
- batzuk honako hauek dira: kalitatezko hezkuntza (% 45,5), seme-alaba zaharragoen antzeko hezkuntza-esperientziak (% 13,6), etorkizun ona izatea (% 13,6) eta zoriontasuna eta lasaitasuna (% 13,6); azken alderdi horri balio handia ematen diote bereziki beste herrialde batzuetatik datozen familiek.
- **Eskolatze-prozesuari buruzko informazioa emateko moduari** dagokionez, askotariko informazio-iturriak erabiltzen dituzte familiek: ikastetxeen webguneak, ikastetxeetako zuzendaritzei eta udaletako eskolatze-bulegoei egindako kontsultak, gertukoekin eta irakasleekin izandako elkarrizketak eta ateak zabaltzeko egunak; azken horietara maiz jo dute familiek, euren esanetan ez baitute aski informazio jasotzen.
 - **Ikastetxea aukeratzearekin** lotuta, lantegia egin aurretik familien % 11,9k soilik zioen ez zuela argi zer aukeratuko zuen; aldiz, % 28,6k erabakia hartua zuela adierazi zuen.
 - Azkenik, **ikastetxeko ikasle migratzaileen edota egoera sozioekonomiko ahulean dauden ikasleen presentziari** dagokionez, datu bat nabarmendu da bereziki: % 42,1ek egoera sozioekonomiko ahulean dauden ikasle ugariko zentroak saihestuko zituela adierazi zuen

EBALUAZIOAREN EMAITZAK

Familien esanetan

Erreminta Kutxaren bidez gidatutako eskolatzeko inklusiborako lantegia abian jarri ondoren:

- Familien % **56k** aniztasunean **oinarritutako eskola bat aukeratzearen garrantzia ulertzen zuela** adierazi zuten.
- % **73k** adierazi zuten lantegia lagungarria gertatu zitzaiola **eskolatzeko prozesuari buruzko informazioa** jasotzeko, eta % **67k** adierazi zuten ikasitakoa aplikatuko zuela.
- **Ikastetxea aukeratzeko lehentasunezko irizpideei** dagokienez, ikusi da indartu egin zirela bizikidetzak eta eskolako giroa, hezkuntza-errendimenduekin eta ikuspegi pedagogikoarekin lotuta.
- Seme-alabak **ikasle migratzaile ugariko edo egoera ekonomiko ahulean dauden ikasle ugariko eskola batean inskribatzeaz** galdetuta, ikusi da “Ez da probablea” erantzun zuten familia asko beren iritziak leuntzen hasi zirela, eta “Probabilitate txikia” edo “Oso probablea” erantzuten hasi zirela, hurrenez hurren.
- Azkenik, nabarmendu beharra dago **eskolatzeko inklusiborako lantegiaren balioespene oso positiboa izan dela** (% 78), eta, ikuspegi horretatik, hainbat gai azpimarratu dituzte familiek, hala nola landutako gaiak (% 82) eta emandako materiala (% 70).


Zuzendaritza-taldearen esanetan

- % **74k** uste du **Erreminta Kutxako materialak aski izan zirela** familiekiko lantegia gauzatzen laguntzeko, eta ia % **80k** uste du ez zela beharrezkoa izan beste baliabide osagarri batzuetara jotzea lantegia egiteko. Hori horrela bada ere, elkarriketetan, zuzendaritza kide batzuek prestakuntza handiago baten beharra azpimarratu zuten, bai eta gogoetarako denbora gehiagoren beharra ere.
- % **95ek** adierazi zuten oso gustura geratu zela **lantegia familien askotariko beharretara egokitzeko aukerarekin**.
- % **68k** adierazi zuten **lantegiaren iraupena egokia izan zela oinarritzeko zenbait kontzeptu lantzeko**. Dena den, zuzendaritzako kide batzuek elkarriketetan adierazi zuten lantegia saio bakar batean emateak mugatu egin zuela familien artean gogoeta sakonago bat egiteko aukera. Horrez gain, iradokizun gisa, adierazi zuten egokia izan zitekeela sentsibilizazio-jarduerak irakasleen artera eta Lehen Hezkuntzako eskoletara zabaltzea, azken horiek ere aniztasunaren gaia landu dezaten eta aniztasun hori erakuts dezaten; hezkuntza-sisteman zehar mezu horrek jarraipena izatea ziurtatuko litzateke horrela.

Udaletako eskolatz-bulegoen esanetan

Oro har, **familiekin eskola-segregazioa eta aniztasuna lantzen hasteko abiapuntu egokitzat** jotzen dute proiektua udaletako eskolatz-bulegoek. Adierazi zutenez, lantegia egin ostean, ateak zabaltzeko egunetan eskola gehiago bisitatzeko aukera aztertzen hasi ziren zenbait familia. Ikuspegi horretatik, **proiektua erabilgarria dela diote oro har**, ados daude horretan; **beren ekintza-ildoan barruan ondo kokatuta ageri da, eta beste testuinguru batzuetan ere errepikatu daiteke.**

Hori horrela izanik ere, udaletako eskolatz-bulegoek Erreminta Kutxarekin lotuta diote zenbait hobekuntza egin daitezkeela hura ezartzerakoan (hala nola baliabide gehiago ematea emakumezko zuzendariei aniztasunaren onuren alde egiten laguntzeko), eta lantegien osagarri liratekeen neurriak ere erabil daitezkeela (informazio-kanpainak, esaterako). Gainera, udaletako eskolatz-bulegoek honako hau ere iradoki dute: familiei zehatz-mehatz azaldu behar zaie Administrazioak hartutako zenbait neurri ez direla arbitrarioak; aitzitik, eskola-segregazioa lantzeko plan baten barnean kokatu behar dira (zenbait plaza gordetzea, adibidez).



5 ERREMINTA BURUZKO ONDORIOAK: KUTXAREN GARRANTZIA, ERAGINKORTASUNA ETA JASANGARRITASUNA

Zenbait ekimenek, Eskola Segregazioaren aurkako Kataluniako Itunak⁶, esaterako, eta autonomia-erkidego ugari hainbat urtean egindako lanak segregazioaren aurka egiteko politika publikoak sustatu dituzte, eskola-segregazioa gutxitzeko eta hezkuntza-aukeren berdintasuna bultzatzeko xedez. Kataluniak hainbat adibide eskaintzen ditu esparru horretan, eskola-motxilak⁷ edo lehen ere aipatu dugun eskaintza berezia, kasurako.

Dena den, hainbat azterlanek, Thompson & Trejo (2023)⁸ azterlanak, esaterako, eskola-segregazioari buruzko informazio-politikek eskolatzeari buruzko familien erabakietan eragina izatea zaila dela islatu dute. Oinarri horretatik abiatuta eta eskola-segregazioa faktore ugari arazo konplexua dela ulertuta, Erreminta Kutxa eta horrelako proiektuak ezin ditugu hartu bakarka; izan ere, bakarka eragin mugatua dute familien jarrera eta usteetan, batik bat erabakiek haien seme-alabei zuzen-zuzenean eragiten dietenean.

Aitzitik, **informazioa emateko eta ahalduzko xedez garatutako esku-hartzeen multzo baten barnean kokatzen da Erreminta Kutxa, eta, erakundeen esparruan, eskola-segregazioa murrizteko beste esku-hartze bat baino ez dira; bide horretatik,**

esku-hartze hori lagungarria da administrazio publikoek eta eskola-komunitateek esparru horretan egiten dituzten ahaleginak sendotzeko. Eskolatzeko inklusiborako lantegiaren eta beste politika batzuen (eskaintza berezia, adibidez) arteko elkarreraginak eskola-segregazioaren aurkako borrokan eta hezkuntza inklusibo eta ekitatibo batean nabarmen aurrera egiteko aukera eman dezake. Hau da, lantegia baliagarria izan daiteke gogoeta egiteko eta lehendik ditugun politikak sustatzeko mekanismo gisa, ez baita eragin negatiborik hauteman ekimen horien artean, eta, alderantziz, elkarren osagarri eta indargarri baitira.

Illo horretatik, ikastetxeetako zuzendaritzetako kideek eta udaletako eskolatzeko-bulegoetakoek elkarriketetan adierazi dute **esku-hartzea garrantzitsua dela** tokian tokiko eskakizunei eta lehentasunei begira, beren lurraldean **eskola-segregazioa arazo esanguratsua** dela adierazi baitute. Eta, horren arrazoiak aztertzerakoan, azaldu dute besteak beste familien lehentasunengatik izan daitekeela hori, antzeko estatus sozioekonomikoa dutenekin batera eskolatzeko lehentasunagatik, zehazki, eta, horrez gain, eskoletako baliabideei eta

⁶ Síndic de Greuges. (2019). Pacto contra la Segregación Escolar en Cataluña. Un compromiso para el éxito educativo. Hemen: https://www.sindic.cat/site/unitFiles/6077/Pacte%20segregacio%20escolar%202018_cast_ok.pdf

⁷ “Eskola-motxilak” (edo motxilles escolars) Kataluniako Hezkuntza Sailak ezarritako neurri bat dira. Ikasle zaurgarrienak eskolatzeko dituzten ikastetxeek administrazio-publikoen ekarpenen bidez jasotzen dituzten funts osagarri batzuk dira, eta ikastetxe horiek eskolatzeko-aldi osoan laguntzen diete ikasle horiei.

⁸ Thompson, M., & Trejo, S. (2023). *My school district isn't segregated: experimental evidence on the effect of information on parental preferences regarding school segregation*. *Sociology of Education*.


kultura-aniztasunari buruzko kezak ere aipatu dituzte.


Bestalde, kontuan hartuta lantegia egiteko orduen kopuru estimatua 168 ordukoa dela soilik, eta ordu horietako gehienak (100 ordu) ikastetxeetako zuzendaritzek beren gain hartzen dituztela, esku-hartze honen kostu ekonomikoa nahiko txikia da. Beraz, **badirudi aldekoa dela lantegi hauen kostuaren eta onuren arteko erlazioa**, nahiko esku-hartze txiki batekin hezkuntzaren esparruko liderren esku jartzen baitira hezkuntza-ingurune inklusibo eta bidezkoago baten kontzientzia pizteko eta sustatzeko beharrezko tresnak.

Bestalde, Erreminta Kutxan oinarrituta Lleidan eta Tarragonan gauzatutako esku-hartzea **beste udalerrri batzuetan ere errepikatu daiteke**. Ikuspegi horretatik, lantegiaren egiturak informazio teorikoa eta jarduera praktikoak, parte-hartzaileak eta eztabaida sustatzen dutenak bateratzen ditu, eskolatzeko-prozesuarekin eta eskoletako aniztasunari buruzko sentsibilizazioarekin lotutako moduluak hartzen baititu barnean. Bai formatu eta eduki hauek eta bai haur-eskoletako emakume zuzendariak gaitzeko

bideak hainbat maila eta udalerritara egokitu eta eraman daitezke. Gainera, lantegia modularra denez, **malgua da, eta, horri esker, askotariko testuinguru sozioekonomiko eta kulturaletan ezar daiteke**, era guztietako jendearengana irits dadin.

Ondorio gisa, esan dezakegu **ikastetxeetako zuzendaritzetako kideak gaitzeko saioak eta familiei zuzendutako lantegiak esku-hartze eraginkorrak direla, bai eta erraz errepikatzeko modukoak ere, denboraren eta baliabideen ikuspegitik**, nahiz eta perfektzionatzen jarraitu beharko den oraindik; **horrez gain, saio eta lantegi horiek ezinbesteko tokia betetzen dute ekitatea eta kalitatea hobetzera zuzentzen diren hezkuntza-politika irekiagoen esparruan**. Prestakuntza-saio hauen bidez indartuta, ikastetxeetako zuzendaritzek kontu honi eskaintzen dioten dedikazioa eta konpromisoa funtsezkoak dira gaur egungo eskola-segregazio mailak murrizteko eta, horrela, denboraren joanean kalitatezko hezkuntza inklusiboago bat lortzeko haur eta nerabe guzti-guztientzat.





BIBLIOGRAFIA

- Fundació Jaume Bofill. (2010). Les famílies davant l'elecció escolar. Hemen: <https://fundaciobofill.cat/publicacions/les-families-davant-leleccio-escolar>
- Fundació Jaume Bofill. (2017). Políticas de elección y asignación de colegio: ¿qué efectos tienen sobre la segregación escolar? Hemen: <https://fundaciobofill.cat/es/publicaciones/politicas-de-eleccion-y-asignacion-de-colegio-que-efectos-tienen-sobre-la-segregacion>
- Save the Children. (2018). Nahastu Nirekin txostena. Hemen: https://www.savethechildren.es/sites/default/files/imce/docs/anexo-mezclate_conmigo-eus.pdf
- Murillo, F. J., & Martínez-Garrido, C. (2018). Magnitud de la Segregación escolar por nivel socioeconómico en España y sus Comunidades Autónomas y comparación con los países de la Unión Europea. Revista De Sociología De La Educación-RASE, 11(1). Hemen: <https://doi.org/10.7203/RASE.11.1.10129>
- Síndic de Greuges. (2019). Pacto contra la Segregación Escolar en Cataluña. Un compromiso para el éxito educativo. Hemen: https://www.sindic.cat/site/unitFiles/6077/Pacte%20segregacio%20escolar%202018_cast_ok.pdf
- Fundació Jaume Bofill. (2020). Estat i l'evolució de la segregació escolar a Catalunya. Hemen: <https://fundaciobofill.cat/publicacions/informe-estat-i-evolucio-de-la-segregacio-escolar-catalunya>
- Save the Children eta Esade EcPol. (2021). Diversidad y libertad. Reducir la segregación escolar respetando la capacidad de elección de centro. Hemen: <https://dobetter.esade.edu/es/segregacion-escolar-esadeecpol>
- Thompson, M., & Trejo, S. (2023). My school district isn't segregated: experimental evidence on the effect of information on parental preferences regarding school segregation. Sociology of Education. Hemen: <https://doi.org/10.1177/00380407231213342>

ESKER ONEZ

Bereziki eskerrak eman nahi dizkiegu:

Beren ezagutza eta esperientzia ukaezinarekin, Espainian Eskola Segregazioa sustatzen duten faktoreak hobeto ulertzen lagundu ziguten profesional guztiei, eta, aldi berean, "Nahastu nirekin" Erreminta Kutxa elkarrekin sortzen eta berrikusten lagundu zigutenei. Horien artean: Àlex Boix del Olmo eta Carmen Godoy Mesas (Valentziako Hezkuntza Kontseilariatzako Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritza Nagusiko erreferenteak); Bernat Ferrer (Collectiu d'Escoles contra la Segregació elkarteko ordezkaria); Iñigo Salaberria (Euskal Eskola Publikoak Kudeatzeko Elkarteen Federazioko ordezkaria); José Antonio Cañabate Vecina (Balear Uharteetako Hezkuntza eta Unibertsitate Saileko Eskolatzeko Zerbitzuko burua); Rafael Bermudo del Pino (Andaluziako Hezkuntza Ikusatzailen Elkarteko Hezkuntza Ikusatzaila, ADIDE-A); Rubén Pacheco Díaz (Valentziako FAMPAn eta Valentziako Gonzalo Anaya AMPA Konfederazioko presidentea); Ariadna Caveró Cayuelas (Rubiko Udaleko Eskolatzeko Bulegoko erreferentea); Fina Vilarrúbias Calaf (Igualadako Udaleko Irakaskuntzako teknikaria); Carme Pallès (Bartzelonako Sabadellgo Udaleko Eskolatzeko Bulegoko erreferentea); Marta García (La Flor Auzo Elkarteko erreferentea); Victoria Eugenia Castrillón Zapata (Alma Latina Elkarteko presidentea); Juan Molano Villar (Barró Elkarteko erreferentea); Miguel Ángel Castan (Zaragozako probintzia-zerbitzuko Hezkuntza Ikuskaritzako ordezkaria); María Dolores Requena (Hezkuntza Ekintzako ordezkaria); Rosa María Llorente García (Zaragozako Ramiro Solans HLHIko zuzendaria); Eva García-Bajo Pierna (Avempace BHIko ordezkaria); María Segurola (Jaume Bofill Fundazioko erreferentea); Nélida Zaitegi de Miguel (irakaslea eta pedagogo); Juan Ruiz Jiménez (Eskolatzeko Inklusiboaren aldeko Udaletako Lege Ekimeneko ordezkaria); Cristina Bohanna (Aragoiko Gobernuaren Hezkuntza Berrikuntzako Departamentuko erreferentea); Carlos Velázquez Gil (Gaztela Mantxako Hezkuntzako ikusatzaila); Ana Alicia Rodríguez Millas (Gaztela-Mantxako Hezkuntza, Kultura eta Kirol Saileko Hezkuntzako ikusatzaila nagusia); Carmen Blanco Chinchilla (Madrilgo Udaleko gizarte-langilea); Irene López Fogués (Valentziako Erkidegoko Hezkuntzako ikusatzaila); eta Gasteizko Udaleko Hezkuntza Zerbitzuko erreferenteak.

Udaletako eskolatzeko-bulegoei eta Lleidako eta Tarragonako haur-eskolen sarea osatzen duten emakume zuzendari guztiei ere gure esker hona adierazi nahi diegu, Erreminta Kutxa ebaluatze eta hobetzeko aukera emateagatik. Bereziki, Laura Marín, Jaume Mor Sancho, Jessica Casas Casajuana, Alba Cotes Olaya eta Dolors Chiveli Badari, gurekin elkarlanean aritzeagatik.

Gure taldeari, emandako aholkuengatik eta eguneroko babesagatik: Álvaro Ferrer Blanco (Gizarte Berrikuntzako arduraduna), Alfonso Echazarra De Gregorio (Intzidentzia Politikoa eta Hezkuntza Ekitatean aditua), Marcelo Segales Kirzner (Kalitatearen eta Ebidentzien arloko arduraduna) eta Paula Hernández García (Kalitatearen eta Ebidentzien arloko teknikaria).

Txosten hau egiteko, Persona Servicios de Cocreación, S.L. etxearen lan batean, Daleph Iniciativas y Organizacion SAren ebaluazioan, zenbait irakurketatan eta hezkuntza-inguruneke hainbat profesionalekin egindako elkarrizketetan eta baterako sorkuntzako lantegietan oinarritu gara.

